

IZEBA MAÑOLIREN KONTSEILUAK

Erropa zabaltzeko patioa ez duten etxeak badira oraindik gure herrian, eta guztiok dakigu zenbateraino den antiestetikoa kaltzontziloak, bragak eta beste zenbait barne elastiko gure balkoi-etako tenderetetan, exposizio gisa, zabaltzea.

Situazio lotsagarri hau al den neurrian murrizteko asmoz, hemen doakizue aldi berean ekonomikoa eta dekorosoa den sistema infaliblea: paperezko braga eta kaltzontziloak oso txukunak dira, eta FRYCA-n edo BAMBUT-en saltzen dira hiruko paketetan. Erabili eta gero bota egiten dira. Ohitura zaharretakoa bazara eta deterjentean sos gutxi gastatu nahi baduzu, elastiko klasiko eta kontserbadoreak errebersible eran erabili ditzazkezu, hau da: barruko aldetik zikindu direnean, buelta eman beste aldea zikindu arte. Oso garbia bazara, badituzu kaltzontziloak hiru hilabetetarako...

ZAIN DEZAGUN HORRELA GURE INGURUNEA !!!

ETXEKO FATXADAK TXUKUN !!!

Izeba Mañoli

